

# Alegiako gitarristak

## Erminia Jauregi Lizarribar

- Alegian jaio zen, 1904/04/27an.
- Donostian hil zen, 2002/01/31n.
- Zumaiako karmeldarretan ikasi zuen.
- Musika ikasia, senideek bezala, Tolosatik etxera etortzen zitzaien irakaslearekin.
- Bandurria eta gitarra jotzen zituen.
- Donostiako udaletxeko langilea izan zen.

## Iñaki Mezquita Aranburu, “Txete”

- Alegian jaio zen, 1959/02/01ean.
- Irakasle-eskolako titulua eta SHEE (IVEF)eko diplomatura lortuak ditu. Irakaslea da.
- Arantzadiko kidea eta arlo batzuetako arduraduna (ikus Arantzadiko orrialdeak)
- Musika:
  - 8-9 urterekin gitarra bere kabuz jotzen hasi zen. Autodidakta izan da beti.
  - 15 urterekin lehen taldea sortu zuen, DREAMER (soñador), Tolosakoak ziren beste kideak eta horien artean Mitxel Longaron (oraindik gitarra jotzen jarraitzen duen gitarrista ona).
  - Altsasuko txapelketa batean egin zuten lehen emanaldia (3. egin zuten), gero, Tolosako Iparragirren (txapelketa-erakusketa).
  - Jaialdietan eta berbenetan jotzen zuten taldeekin hasi zen ondoren, “Grupo 75” eta “Jaiak” taldeekin.
  - GAIZKA izeneko taldea sortzea proposatu zioten berbenetan ibiltzeko. Hor zebilela, rock kontzertuak emateko aukera sortu zitzaion eta taldea utzi egin zuen. Magna Carta, Bloque, Bracanan, Tilburi, Paracelso eta Menfis taldeekin jo zuen.
  - SAKRE taldea sortu zuen. Kontzertuak ematen hasi ziren eta ELKAREk diskoa grabatzea proposatu zien, eta horrela egin zuten. Rock sinfonikoa deitzen zena egiten zuten, orain rock progresiboa deitzen zaio. Ordubeteko suite bat jotzen zuten, oso errodutua zutela grabatu zuten, 1978an, “Bizitako gauzak” diskoa. Japonian izugarri saldu omen zen disko hori.
  - Kontzertuetan telonero gisa izaten zuten taldea Indar Trabes zen (gero Itoitz izango zena). Donostiako Trinitate plazan, Gasteizen, Lekeitio, Alegian... rock jaialdietan jo zuten.
  - Bigarren diskoa grabatzeko zorian zeudela Txetek eta baxu-jotzaileak utzi egin zuten taldea eta Brakamanen aritutako baxu-jotzailea eta gitarrista sartu ziren taldean.
  - Bakarleri moduan hasi zen ondoren, eta Iñaki Eizmendik deitu zion laguntzeko; horrela urte eta erdi eman ondoren, soldadutzara joan zen. Handik itzulitakoan, jarraitu egin zuen jotzen; Imanoli ere lagundu zion.
  - Klabelin Komik-ekin jo zuen eta horiekin bira bat egin zuen.
  - ARKAITZ eta AKELARREkin probatu zuen, baina ez zuen jarraitu.
  - 92an, URKOREkin ibili zen, urtebete.
  - Gauza puntualak egiten aritu da geroztik: Irati eta Ekaitz Goikoetxearekin AHOTS BIDAZTIK taldean parte hartu zuen, bere musikarekin, urte eta erdiz. Abestiak eta musika egin ditu ETBrako, zenbait erreportajetarako eta beste batzuentzat.

- SAKRE taldea berreskuratzeko gogoia du eta zerbait egin nahi du.

### **Paulo Garaialde Salsamendi**

- Alegian jaio zen, 1964/05/26an.
- Alegian hil zen, 1995/01/18an.
- Arantzazuko frantziskotarretan egin zituen ikasketak eta musika ere han ikasiko zuen.
- Lagunek diotenez, oso polifazetikoa omen zen. Edozein instrumentu jotzeko prestutasuna omen zuen, bateria, gitarra, baxua...
- Ziklox Garaialde taldeko baxu-jolea zen.

### **Iñaki Navarro Etxeberria**

- Irunen jaio zen, 1964/07/30ean.
- Irungo koruan kantatzen zuen, gainerako senideek bezala.
- Goizuetan ere bizi izan ziren eta hango txistulari-taldean ibilia da.
- Musika:
  - Gitarra eta baxua jotzen ditu.
  - Bere kabuz lehenengo eta Jazzlen, Txema Garcesekin, ikasi zuen gero.
  - 16 urterekin Hernaniko "Descontrol" taldean jotzen zuen.
  - Ziklox Garaialde Alegiako taldea sortu zuten eta hango gitarrista izan zen.
  - 90. hamarkadan, Hernaniko "Madarikatuak" taldeko gitarrista izan zen.

### **Mikel Navarro Etxeberria**

- Irunen jaio zen, 1968/11/25ean.
- Honela kontatzen du musikaren munduan egin duen ibilbidea:

“Musikaria izatea kasualitate bat izan zen, zeren nik musikaz dauzkadan ikasketak bakarrak solfeoko lehenengo eta bigarrenengo ikasturteak dira. Nik zaletasuna banuen, baina ez beste mundukoa, etxean nire senideek txistua eta horrelakoak jotzen zituzten.

Gertatu zena hau izan zen: nire lagunak taldetxo bat muntatu behar zutela eta, baxujolea falta zitzaizela eta, han nengoen ni instrumentuaz enamoraturik, baina tutik ere jakin gabe. Baxu bat erosi eta horrela hasi ginen; gutxi gorabehera, 1984an izan zen.

Gure taldeko gitarrista (Andoni Arratibel) Tolosako lagun batzuekin hasi zen jotzen eta, haiek ere baxujolea behar zuten, ni Andonirekin joan nintzen, zerbait serioagoa egiteko asmoz, han sortu zen **Lapsus kalamí**, urte pare bateko historia.

Gero, Andonik bere ibilbideari segitu zion eta guk, batería batzuk pasa eta gero, **The Window Ventanas** sortu genuen; 1989an, gutxi gorabehera. Hortik 1998 arte, kontzertu pilo bat eskaini genituen, eta bi maketa eta CD bat grabatu ere bai, Suitzatik bira txiki bat ere eman genuen. 1998an, taldea desegitea erabaki genuen, lanak eta familiako kargak ez zigutelako uzten behar bezala zentratzen, eta, gainera, nahiko estankatuak sentitzen ginelako. Gaur egun, ez dut inongo taldetan jotzen, baina, berriro libratzen naizenean, badut intentzioa zerbait egiteko, mementoz ideia bat besterik ez da”.

### **Andoni Arratibel Vitoria**

- Alegian jaio zen, 1969/03/06an.
- Batxilerra ikasi zuen eta musikako ikasketekin jarraitu zuen.

▪Musika:

- Gitarrarekin Goi mailako titulua du.
- Jazzlen eta gitarrista askorekin ikas izuen, Iñaki Salbadorrekin inprobisazioa ikasi zuen.
- Bartzelonako “L’aula de música moderna y jazz”en ikasi zuen.
- “Parkinsons” jazz taldea sortu zuten: bi saxo, tronpeta, tronboia, bi gitarra elektriko, baxua, pianoa eta bateria.
- ETBrako lan egin du.
- Gaur egun ere jazza jotzeko elkartzen da beste batzuekin.

▪Irakaslea izan da Bartzelonan (ikasle garaian), Tolosan, Legorretan, Ordizian, Idiazabalen eta Zaldibian. Gitarra elektrikoa, gitarra klasikoa, baxua, harmonia modernoa eta “combo jazz” irakasten ditu.

### **Karlos Gesteira Basañez “Txarli”**

- Alegian jaio zen, 1974/10/01ean.
- Honela dio berak musikaren inguruan egindako ibilbideari buruz:  
*-Sor Eliarekin Alegiako Frankonin eta Tolosan Isidro Larrñagarekin Ikasi nuen solfeoa eta pianoa jotzen.*  
*Atonio Zubillaga alegiatarrarekin akordeoia ikasten hasi nintzen, urte aritu nintzen. Ondoren Tolosara joan nintzen Isidro Larrañagarekin ikastera. Era berean, nire izeba batek zuen gitarra ekarri nuen etxera, nire afinazio propioarekin, Do Maiorren, hasi nintzen gitarra astintzen. Gitarra jotzen ikasteko liburu bat zegoen herriko liburutegian, eta solfeoa nekienez, nire kasa gitarra ondo afinatu, eta ikasten hasi nintzen. Gaur egun ere nire kasa aritzen naiz.*  
*-Lanbide Heziketako ikasketak ditut, UBI ere bai. ORKLIn aritzen naiz lanean.*  
*-Esan bezala, autodidakta izan naiz, liburuak nituen irakasle, gaur egun, teknologia berriei esker, internetetik jaisten ditut partiturak etab...*  
*-Kaleberako festa batzuetan atera ginen "konjuntoi" moduko bat. Kaseta ere banuen "Live in Kalebera" 1994 inguruan grabatua. Gero Ziklox-en aritu nintzen Paulitori omenaldietan, horko grabazio bat ere bada.*

### **Manex Elola Gorostidi**

- Alegian jaio zen, 1977/07/07an.
- Ingeniaritza Teknikoa ikasia.
- Alegiako Andoni Arratibelekin ikasi zuen, 4 urtetan, gitarra jotzen eta solfeo erritmikoa ere bai. Geroztik bere kabuz jarraitu du ikasten.
- 2005ean ZECK talde hernaniarreko kidea izan zen, baina 2006an desagertu egin zen taldea. Beste talde bat sortzen ari omen dira orain Hernanin.
- Alegiako ekitaldi askotan parte hartzen du.

### **Jon Aranburu Artano**

- Alegian jaio zen, 1980/03/16an.
- Bere bizitzaren berri honela ematen du:
  - “Umetan, 7 urtetik 12 urte bitarte, herrian solfeoa ikasten aritu nintzen; hasieran, monjetan (Franconin) eta, gero, Antonio Zubillagarekin (bere etxean).
  - 14 urterekin edo, gurasoek gitarra bat oparitu zidaten, eta, hasieran, bakarrik eta, gero, irakasle baten laguntzaz (Andoni Arratibel, alegitarra) gitarra ikasten aritu nintzen.

19 urterekin hasita, Bilboko Magisteritza eskolan musika irakasle izateko ikasketak egin nituen 3 urtean.

- Bitarte horretan, Alegiako Txintzarri Txiki abesbatza zuzendu nuen eta abesbatzen zuzendaritzako ikasketak egin nituen pare bat urtez, abesbatzen federazioak antolatutako ikastaroetan.  
22 urterekin Euskal filologia ikasketak egiten hasi nintzen Gasteizen.
- Gaur egun, azken 6 urteetan bezalaxe, Euskara irakaslea naiz Gasteizko IKA euskaltegian. Hala Bedi irratian ere banabil lanean, musika irratsaio batean esatari eta fonotekako kide moduan; hori bai, ordainetan diru-saririk gabe.
- Umetatik izan dut musikarekiko lotura, 6-7 urterekin Txintzarri Txikin kantatzen hasi nintzenetik. Lehenbizi, abesbatza txikian, gero, Txintzarri abesbatzan, 23 urte inguru bete arte jarraitu dut kantatzen, bizimoduak behartuta utzi arte. Bitarte horretan, Txintzarri Txiki zuzendu nuen pare bat ikasturtez.
- 16 urterekin lagun batzuekin biltzen hasi nintzen talde bat osatzeko asmotan, baina horretan geratu zen, asmotan. 18 urterekin Amezketao **Triki Up** taldean jo nuen baxua. Kontzertu batzuk eman eta kantu bat grabatu genuen Tolosaldeko talde berrien kantuen bilduma izaten den Martxaundin. Taldea 1999an-edo desagertu zen.
- 21 urterekin Zarauzko Azken Portu auzoko jaietan jotzeko talde bat osatu genuen 7 bat lagunek eta uda eman genuen horretan. **Txaparock** zuen izena, eta horiekin ere kontzertu batzuk eman (10 inguru) eta utzi egin genuen.
- 23 urte ingururekin Julen Zulaika eta Hodei Esteban lagunak ezagutu eta kantu batzuk egiten hasi ginen. Pixkanaka-pixkanaka kantu gehiago eta jende gehiago batu taldera, eta **Stockholm S** moduan lehenengo kontzertuak ematen hasi ginen. Disko bat atera genuen: **Pitzaduretan barrena**. Oraindik talde honekin jarraitzen dut, eta bigarren lana grabatzekotan gara.
- 26 urterekin Beste Bat taldearekin uda bat egin nuen herriz herri jotzen. Tarteetan, Katalunian eta AEBn izan ginen.  
Bitarte horretan, kontu dezentetan ibili naiz: Poesiak musikatzeko, bertsolariei bertso jarriak musikatzeko laguntzen, Trikizio taldearen kontzertu batzuetan gitarristaren 'ordezkapenak' egiten, Hala Bedi irratia baxkideak lortzeko kanpainarako kantua egiten, pare bat film laburretarako musika konposatu, grabatu eta jotzen (bat, Mikel Goñi Amezketao lagunarekin batera)...

### **Irati Garmendia Iraola**

- Donostian jaio zen, 1990/10/10ean.
- Unibertsitateko ikaslea da.
- Andoni Zubillagarekin eta Loatzo Musika Eskolan ikasi zuen baxua jotzen.
- Alegiako hainbat ekitalditan jotzen du baxua.